

## **EUSKAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA ADMINISTRAZIOAN**

Azken 30 urteotan euskararen ezagutzak berebiziko gorakada eduki du demografiari eta geografiari dagokienez. Lanbide eremu zehatzetan ere aldaketa nabariak eman dira. Egia da gero eta elebidun gehiago dagoela gure autonomia erkidegoan eta euskara gero eta leku gehiagotan erabiltzen dela. Hortaz gain lanbide eta profesio asko ere euskalduntzen hasiak dira eta lan gogorra egiten ari dira, euskararen normalkuntza posible egiteko. Administrazioak zeregin garrantzitsua jokatzen duenez herritarren bizitzetan administrazioak azken urteetan emandako urratsak handiak izan dira, baina oraindik lan handia dago egiteko. Administrazioaren aldaketen arrazoi eta funtsen artean -beste gauza askoren artean-, 1998ko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak bere garrantzia izan du, hau guztia posible izan dadin. Plan nagusiak ondorengo hau adierazten zuen bere atariko lehen paragrafoan.

**-1998ko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak honela dio** "euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna. EBPNren helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea."

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, baditu helburu zehatz batzuk beraz, batetik euskaraz bizi nahi duenari, euskaraz bizitzeko bermea ematea eta adibidez beste hizkuntza ofizialekin gertatzen den moduan euskaldun hiztunen eskubideak errespetatzea eta bestetik, hezkuntza sisteman irakaskuntza eraginkorra bermatzea. Beste helburutako bat izan daiteke euskara sustatzen duten neurriak bultzatzea, legeak, euskara proiektuak, proposamenak.... Zerbitzu publikoetan euskara bermatzea (osasun alorrean, justizian, administrazioan, ertzaintzan...) eta azken helburua komunikazio mota ezberdinei zuzendua zegoen, (irradi, telebista, prentsan....) hauek ere euskara sustatzeko eta herritarrei euskara hurbiltzeko asmoa zuena.

Egia da **euskara biziberritzeko plana** sinatu zenetik gauzak asko aldatu direla eta euskararen normalizazioa eta erabilerak administrazioan garapen izugarria eduki duela. Hala ere, esan behar da ez dela nahikoa izan helburu eta asmo guztiak asetzeko. Hau guztia esateko, ondorengo egitateetan oinarritzen

naiz: Demagun, herri bateko alkate izendatu berri den norbaitek ez dakiela euskaraz hitz egiten. Ez ahal du beraz euskaraz funtzionatu nahi duen administrazio batek euskararen normalizazio eta erabilera administrazioan kaltetzen euskal hiztunak jartzen ez baditu lanpostuetan? Nire iritziz administrazioan jardungo duen horrek euskararen gaineko ezagutza ez izateak gabeziak sortuko ditu herritarren gain.

Aldiz Katalunian ez da hau gertatzen Katalunian administrazioan lan egiten dutenek erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakin behar dituzte. Gainera betebeharrak hau Kataluniako 1/1998 legeak 11.artikuluaren zehazten du. Aldiz euskal administrazio publikoan euskara jakitea beharrezkoa dela sinestarazi diguten arren, errealitatea beste bat da.

Hala ere, EAEko Euskararen Legea onartu zutenean Euskararen Legearen 8.3 artikulua honako hau zioen: «Herri-aginteek euskara bakarrik erabiltzea erabaki ahal izango dute toki-administrazioaren esparruan baldin eta, udalerritaren ezaugarri soziolinguistikoak direla eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira».

Horretaz gain, 86/1997ko legea Administrazio-atal elebidunak eta, hala badagokio, euskaraz dihardutenak izango dira euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatzeko oinarri eta euskarri. Ildo horretatik, esparru horietan izango dira euskararen erabilera normalizatzeko plangintza-sistemaren muin eta ardatz nagusi, eurak baitira, euskal herri-administrazioekin euskaraz harremanak izateko eskubidea bermatuta egon dadin, herritarrek dituzten gutxieneko antolamendu atalak.

Nire iritziz arazoaren muina ez da administrazioan euskaraz hitz egitea edo ez. Lehenbizi normalkuntza plan bat egokitzeko, administrazioan lan egiten duten subjektuek euskararen gaineko jakintza maila eduki behar dute eta beharrezkoa da euskal hiztunak administrazioetan edukitzea, herritarrek beraien hizkuntzan, informazioa, gutunak, jakinarazpenak... jaso ahal izateko.

Administrazioan normalkuntza planak, bere helburuak behar bezala betetzeko bere esparruan adituak diren profesionalak edukitzea beharrezkoa da. Hizkuntza baten normalizazioak, hizkuntza hori erabiltzeko oztipoak saihestean datzanez, administrazioak sustatze horretan jardun behar du, eskubide horiek behar bezala betetzeko, hots, inork bere hizkuntza-eskubideak urratua ez ikusteko. 10/1982 Legeak gainera eskubide horiek bermatzen ditu.

10/1982 Euskararen erabilpena arauzkotzezko oinarrizko Legeak esaten du, "euskara euskal herriaren berezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, batagatik edo besteagatik hortaz baliatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar, Euskal Herriko Autonomia Estatuaren 6-garren ataleko 3-garrenak dionez"

Lege honek seigarren atalean hurrengo hau xedatzen du, "herritar guztiei, autonomia elkarteko lur eremuan herri-administrazioekin izan ditzaten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko aitortzen zaie".

Horrez gain, 86/1997 legean aipamen berezia egiten du, Herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun- maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun dagokion. Hizkuntza eskakizunak maila ezberdinetakoak izan daitezke: 1HE:A (behe maila hizkuntz trebetasun guztietan), 2HE:B1 (oinarrizko maila hizkuntz trebetasun guztietan, idazmenean izan ezik) 3HE:B2 (oinarrizko maila hizkuntz trebetasun guztietan), 4HE:C1 (gaitasun-maila jasoak hizkuntz trebetasun guztietan), EGA edo 3.HABE eta hizkuntza trebetasunak lanpostuaren arabera ezberdinak izango dira.

Egun, euskararen normalizazioa eta erabilera administrazioan, lehen esan bezala, apur-apurka nabaritzen ari da, eta administrazioiko lanpostu askotara joateko egia da euskararen ziurtasun agiria eskatzen dela. Nahiz eta egun euskararen gaineko jakintza gero eta gehiago areagotzen joan den, eta gero eta elebidun gehiago dauden, euskararen erabilera administrazioan ez da ezagutzaren adinakoa.

Normalizazio planak, euskararen ziurtagirien gaineko jakintza eskatzearekin bat nator, baina nire iritziz normalizazio plan batek benetan eraginkorra izateko kasu horretan erabilera sustatzea da niretzat garrantzitsuena benetako normalizazio lortzeko euskarari. Hizkuntza baten erabilerak egiten du hizkuntza bat indartsu eta hizkuntza baten gaineko jakinduriak. Esaera honek dioen bezala- hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek erabiltzen ez dutelako dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik-. Beraz nire iritziz normalizazio planak bideak jarri behar ditu erabilera modu eraginkorrean sustatzeko.

86/1997ko legea, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak,

xedapen orokorretan ondorengo hau adierazten du: "Euskal herri-administrazioak beren zerbitzuan diharduten langileek hizkuntza gaitasun egokia lor dezaten saiatuko dira, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz".

Orduan, administrazioak, bere langileek hizkuntza gaitasun egokia lor dezaten helburutzat badu ez ahal da euskararen normalizazio eta erabileraren kontrakoa, orain dela egun batzuk, jaurlaritzak egindako proposamena?

Jaurlaritzaren proposamen berriak ondorengo honetan datza: "Unibertsitatean D ereduan ikasi dutenek ez dute EGARik beharko lan publikotan 2012tik aurrera, proiektu berria onartzen bada Ez da titulurik emango, baina, lan publikoak eskaintzerakoan, edukita bezala puntuatuko dute. Unibertsitateko ikasketak euskaraz edo D ereduan burutzen dituenak C1 gradua lortuko luke, eta EGA daukatena bezala izango litzateke puntuatua lanpostu publikoa lortzeko".

Jaurlaritzak adierazi du, D ereduan ikasketak burutu dituztenak hizkuntza trebetasunak bereganatu dituztela. Jaurlaritzak dionarekin, ni ez nator bat unibertsitate ikasketak euskaraz egiteak ez du bermatzen euskararen gaineko trebetasuna, eremu guztietan eta gutxiago gaitasun maila jasoak edukitzea. Etorkizunera begira, proposamen berriak administrazioiko lanpostu batzuetan jarduteko gabeziak ekar ditzake eremu batzuetan. Lanbidearen arabera gaitasun maila ezberdinak eskatzen baitirelako. Adibidez auzitegi bateko epaia batek bere betebeharrak ongi egikaritzeko euskararen gaineko jakintza maila jasoak eduki behar dituela deritzot.

Amaitzeko esan, euskararen normalizazio eta erabilera eraginkor bat sustatzeko, euskararen gaineko hizkuntz gaitasunak eskatzea bere erabilera bermatzen duela pentsatzen dudala. Beraz, herri administrazioak normalizazio iraunkor bat lortzeko lan egin behar du eta ez azken proposamenarekin bezala atzerapausoak lortzeko.